

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek koefizienteak eta indizeak finkatu ditu Ordenantza Fiskal honetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuari buruzko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11. artikuluan aurreikusitako ahalmenak eta horri idazketa berria ematen dion, martxoaren 19ko Udal Zerga Sistema aldatzen duen 4/2003 Foru Araua erabilita.

II. GUTXIENeko KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua.

Udalerrian Zerga hau ezartzen zaien jardueratarako Foru Aldundiak zerga honen Tarifetan ezarri dituen gutxieneko kuotak, 1. Eranskinean azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

3. artikulua.

Udalerrian zerga hau ezartzen zaien jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, 2.artikuluaren arabera gehitutako kuotei, 2. Eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. artikulua.

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, hurrenez hurren, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialesi eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5.artikulua.

Aurreko 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira 2. Eranskinean zehaztutako kategorien arabera.

III. ZERGAREN KUOTA

6.artikulua.

1.- Zerga honen kuota Tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotek osatuko dute. 2. artikuluko koefizientea eta 3. Artikuluko indizea aplikatuta, eta hala behar balitz, baita Foru Errekargua ere.

2.- Kooperatibei, kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioei eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateei aplika dakiekeen Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, dagokion kuotan % 25eko hoberia emango da.

IV. GESTIO ARAUAK

7.artikulua.

1.- Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak eskuordetu ahal izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiarengan, Udal Batzarrak aldeztu aurretik erabakitako eran,

edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuz ondorioak izan behar dituen urtea hasi baino lehen.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen sei hilabetearen barruan. Era berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bertan argitaratuko da, hitzarmen horiek eteten direnean.

3.- Artikulu honetako ezarritakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

Ordenantza hau eta bere Eranskinak, Udal Batzarrak onartu zuen 2024ko urriaren 31an eta 2025ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

1. ERANSKINA

I. KOEFIZIENTE BAKARRA:

Finkatuko gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: %2,2.

2. ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena

Udalerriko bide publikoen sailkapena

Indizea: 1